

ZERGA-CONNECT

ZERGAK ORDAINDUZ, ETORKIZUNA BERMATUZ

A.- IDEIAREN LABURPENA

Gure asmoa da biztanle guztiei erakustea beraien zergekin zer egiten den, adibidez, zerbitzuak.

Hori lortzeko, **pegatina identifikatzaileak** sortu nahi ditugu, zergetan ordaindutako diruarekin sortutako zerbitzu mota guztietan egongo zirenak. Osasun-zentroetan, autobusetan... pegatinak jarriko ditugu. Horrela, zergekin lortzen diren baliabideak ikusaraziko ditugu.

Pegatinak **koloretsuak eta reflektanteak** izango dira. **Eslogan** edo esaldi bat izango du letra handi eta deigarrietan. Esloganaren azpian egongo da “zerbitzu hau zergekin lortutako diruarekin ordainduta dago” esaldia. Pegatinaren eslogan eta diseinua erakargarria izan beharko da jendea kartela irakurtzera bultzatzeko. Pegatinaren diseinuarekin amaitzeko, **QR** kode bat egongo da, eskaneatuko duen pertsonak webgune edo **aplikazio batera** eramango dio. Bertan, zergekin lortutako diruarekin ordaindutako zerbitzuen edo baliabideen zerrenda agertuko da.

Gure aiton-amonak ez ditugu zerbitzu honetatik kanpo utzi nahi. Horregatik, Udaletxeek honen berri edukiko dute, eta aiton-amonak **zerbitzu hau modu fisikoan** eskatzeko aukera ere edukiko dute. Zerbitzu hau eskuratzeko udaletxera joan beharko da eta “zergen bidez lortutako zerbitzua” eskatu beharko da.

Azkenik, biztanleek zerbitzu honekin **interakzioa** edukitzea nahi dugu. Hori lortzeko, webgune edo aplikazioak, iradokizun-atal bat edukiko du. Bertan, edozein pertsonak bere ideiak edo iradokizunak txertatzeko aukera edukiko du. Ondoren, Aldundiak Ideien **bideragarritasuna** aztertuko luke.